

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ* 108n. Zenbakia Orrilla/Maiatza
1987



BILBO:

- Bizkaí'tar guztion uria
- Biztanlez ugaria
- Euskeraz urria
- Berebil guztien tokia
- Ez aitzu zarala Euskalerria

37 URTEAN ERBESTERATUAK

Nazi-fazista-falangista indarrak bat eginda, Sanjurjo, Mola eta Franko Gudalburuak, bata bestearen ostean Franko bakarrik geraturarte, agintari eukezala España'ko Errepublikaren aurka asaldari-matxinadaz eraso-aldia asi ebenean jo-muga arduratsuenen España'ko Iparraldean izan eban.

Industri-langintza aztun audienetariakoaren mamina Bilbo izanez, onen aurka etozen erasotailleok eta al bait ariñen jabetu gura eban.

Ementxe, Bilbo'n, aldi onen ez asko aurretik, sortu zan gure Jaurlaritzan.

Bere iturburu ta seaska goresgarria, babeslien odolaz gizandi bat lez koroituta, agertu jakun. Babesliak Euzkadi'ren Meka ta gaztelu zana zainduteko alegindu bear ziran, ta orretarako ipuiñezkoa ta entzutentsua zan burdin garriko bat egin eutsoen Bilbo uriri.

Baiña alperrik.

Gizadiko mamutzar Hitler'ek Franko'ri laguntza emoten eutsaiko, beronek guda-egaskintzaz burdin gerrikoa zatitu eban, ta Gernika'n eraikitza, triskantza ta sarrasketa ikaragarria egin.

Bere egazkiñak, Europa osoa ta Ingalaterra ikaraz eta oñazetan ipiñi ebezanak, emen Euzkadi'n, lenengo ekiñaldietan ebiltzan.

t * *

Franko'ren gudari-taldeak, esan dodanez, alemandar ta italiatarrekin indartu ta lagunduta, Bilbo industrigintza-urira sartzeko zorian egozanean, ta ikusirik asmo ori eukiela ta zemaitzen egozala, uriko agintariak, Agirre Jaunak Euzkadi'ren lenengo lendakariak, gizandi bat lez, danen aurrean jarraibidea emoten ebalan, asmo orreri uts eragitea buru ratu jaken, erriarteke legeen arauz. Ez bakarrik ainbeste ume babesbagearena, baita be beste, probintzietik karliste ta Jelkidekin ona Bilbo'ra etorten ziranena lges etozan uri andira batzuk Franko'ren erasoagaitik, beste batzuk Asturias'ko komunistak etozala-ta, euren erriak itzi bearrez. Auxe jaso jakon On Aureliano'ri: Abadiño'ko Parrokitik Bilbo'ra urten bear izan eban.

* * *

Bilbo gerran egoan-eta ganera, jentez beterik. Olan zelan bizi uri onetan? Ezta ezelan beez. Ainbat umekin erbesteratu bear izan eban ugari elduak be.

Oraintsu irasi da orduan erbesteratu ziranen alkarteak.

Onein lendakaritzat Arrien Aita Pasiotarra aukeratu dabe, beronek Erbesteratuen edestia idatzi ebalako.

Neuk be orain, abade bateri Bilbo'tik urteteen, mutiko txikarra zala jazo laburkiro esango dot emen.

Manterola'tar Gabirel euskal idazle ospetsua da. Bere idazki ugaritsuak izenpetzen ebazan bere izen ta abizenaren lenengo izkiakin: Ga-ma.

Abade entzutentsu onek erbesteraturik ala umeen laguntza egiteko urten bear izan ete eban? Ala gauza biakaitik? Ez nago jakitun gai onetzaz. Au bai ba-dakit: Ingalaterrara joan zala, ta an beste Euzkaldun Abade askori jazo jakon lez, lenengotan ez zan begiramenez onartua izan gorri-komunistakaz bat egin ebelako.

Geroago, euren jardunbide, buru ukatze, ta biotz ona ikusi eta Jesukristo'ren oñordeko lez mundu onetan agertzen ziralako ontzat artzen eban euraik egiten eban abade-lana, ta dedu ta itzalez begiratzen eutsoen.

Manterola jauna Ingalaterratik Euzkadi'ra etorrita gero, bein edo birritan berba egin eban nigaz.

Niri ez iñostan zelan ibilli zan neuk be ez neuntsan itandu-eta; esan dodana jakin dot irakurri dodalako edo Aita Arrien'ek esan deustalako.

Baiña Manterola jaunak ni Pasiotarra nazala ta ingeles izkuntza nenkiala zeozer jakiñik, esan eustan:

—Badakizu Aita Domingo Barbieri Italia'ko Pasiotarra Ingalaterran bizi zana ezaguna zana, ta beronek Kardenal Nevman argitsua Eleiza katolikuengana erakarri eban?

—Ezdot jakingo ba... Pasiotarren Irasle Kurutze'tar Paulo'ren amesa orixe izan zan: bere ikasle lekaideak bialdu "Santuen Ugarte" Ingalaterra'ra ta ango biztanleak, bizikeraz ta irakatsiagaz Eleiza katolikuan sartuerazo. Aita Domingo Barbieri egokitu zan orretarako. Eldu zan Ingalaterra'ra ta Protestante eta Anglikano artean asi ta ekin eban onbide osoan eta apostolokuntza gustiz eragilea nekaldiz, biotz beroz eta Jesukristo'ganako maitasunez beterik.

—Ori bai egia da, Aita Letona. An danak santu bat lez miresten eban. Oraindik gizaldi lauren edo erdi ostean gogoratzen dabe ta bere irakatsiak onartzen dabez, bere bizikerea eta esaten ebazan gauzak egokiak ziralako. Eta agiri da ez dagoala apostolokuntza oberik norberaren egikera ta. Jokabidea baiño. Orain be buruan dauke esaten eutsela: "sinismen barik ezin zeruratu zaitekeze". Esakun au esan edo mintzatzen eban eraz, ingles-entzulen entzumenean esango baleutse lez izaten zan: arpegi barik ezin zeinkie bizarrik kendu. Inglesen mintzaera latindarrentzat ain gatxa egiten da. Alan da guztiz be, Aita Domingo Barbieri onak sinistarazi ta biotzez ikaritzen ebazan.

* * *

Esan neike beste garrantzidun jazoriko bat ume erbesteratuai dagokiena.

Nik emen aitatuko dodan gaiaz orduan izan umea zana, Errusia'n edo erri onen uriburua Mosku'n talde artcan egona, Bilbotar mutikotxua zan.

Santa Marina'n ikusi neban ta beragaz berba egin, ni ango osasunezko tokiaren Kapellau ordezkarri izan nintzanean, orain ogci edo ogetabost urte dirala.

Soviet Alkartuak ondo artu ebazan bera ta beragaz joiazan beste mutikotxuak. Asi ta ezi, baita ogibide ederra cmon be: Osagille-ogibidea. Ogibide au bete eta maisukiro, ta zintzotasunez erabilten eban Santa Marina'n. Emon az emoten eutsen eziketea Jaungoikobakoena-zan.

Batera bazkaldu genduan egun baten, ausartu nintzan berari itanduten Jaungoikorik ete egoan. Aren gogorape-nik ete eukan, Goiko Jaunaren laguntza ta babesaren bearrrik sentitzen ete eban...

Zintzotasun osoaz autortu eustan: lagun barik, bakarrean egoten zanean, orixe jazoten jakola ziur ta egiz.

Aldi atan, orain ogeita biren bat urte, ume erbesteratuak izan zanetik ta Mosku'ra eldu izan ezkerotik, aberrirra etorrikoa izan zan; osagille agerkai dirdiradunaz Santa Marina'n lan egiten eban. Gizon ona zanez, alegintzen zan barrukn Hei artezak entzun ta jarraitzen, ondasun guztien Emoilleak Fedearen doaia, emoitiz balioz gaiñekoa emon eutsala onezkero uste dogu.

50 URTE

Berrogei ta amar urte igaro dira bai. Nik orduan bederatzi urte, urte beratan amar egiteko. Ez neban nik gudea ur-urretik ikusi, baiña zillegi izan bekite neure gomutapen txikiak eta aitzu-eziñekoak emen gogoratzea.

Gudeari buruz dodan lenengo gomutapena asierea bera da: Egun baten nire aita larri etorri zan etxera eta ikara aundiagaz berba oneik esan eutsazan amari: Gerreak urten dau! Esaldi orreri ez neutsan sakontasun aundirik emon, ume lez artu neban.

Urrengo egun baten etxazpiko soloan nenbillan. Soloa laietan, bei-buztarria tiratzaille zala eta aita laiariari eusten. Ni itaurrian. Egazkin bat igaro zan gure gaiñetik eta nik neure akullu txikiaren erpiña egazkiñari begira ipiñi neban berari tiroa jaurtiteko lez. Aitak esan eustan: Ez egizu ori egin! Zu lako mutiko batek ori egin eban eta abioitik bonbea bota eutsoen eta guztiak il ziran! Ulertu neban, bai, baiña sakontasun aundi barik.

Beste bein, etxetik Fika'ra bidean aita Arrana'ko Esteban'egaz berbetan egoan eta urriñeko erriren baten lerkaiak jausten ziran eta euren otsa, zaratea, argi-argi entzuten zan, burrunbada bildurgarria benetan. Nik bildurra gizon bi arein aurpegian ikusten neban eta bildur arek zurtz eginda izten nindun.

Goiko soloan, muiño-gaiñean lurra lantzen genbiltzala beste gauza arrigarri bat ikusi neban. Gero jakin al izan genduan zer izan zan: Bizkargi-gaiñetik irunen-irunen etorten ziran bein eta barriro egazkiñak eta aurreko eguneko baiño burrunbada aundiago entzuten genduan. Gernika'ko bonbaketa zan, zalantza barik. Urte asko igaro bear izan ziran egun aretako jazokizunen esangurea ta larritasuna bear zan sakontasunaz norberaganatzeko. Zortzi bat urte geroago izango zan. irakasleak Itatika'ko etxe-ondakiñai egindako poesia'ren irakurketa egin euskun eta gero gai orreri buruz idaz-lan bat egiteko agindu. Ez daukat ondo buruan zer esaten neban, baiña bai Gernika'ra lerkaiak bota ebezan egazkiñak, madarikatuak zirala. Orregaitik ez jatan gauza aundirik jazo, baiña bai esan

eusten irakasleak, kontuz ibilteko eta politikara ez sartzeko.

Urrengo egun baten etxean gengoan eta egazkin urru-ma aundiak entzuten ziran. Bildurra bein eta barriro. Sasi-artean ostendu gintzazan eta naikoa urrean jausi zan lerkai bat. Zarata bildurgarria! Gudearen lenengo oar-ikusi bizia. Amama egoan etxean bakarrik eta bildurrez oiuka aurkitu gendun.

Egun gitxi geroago, etxetik urtetea erabagi genduan. Soloan zuloa egin, lurpean etxeko tretxurik geienak sartu eta bear-bearrekoak burdian artu eta etxetik kanpora. Gu aurretik kamioi baten joan giñan amama ta biok, Zamudio'ra Santo Domingo-aldean dan Agapito Furundarena'ren etxera, baiña aurreko gaba Zamudio'n igaro genduan, Sagasta edo olako izena daukan etxe eder baten. Apari beroegia emon euskuen, baiña gozo jan gendun. Urrengo goizean, Martin bertako agure zarra lagun genduala Agapito'ren etxera, San Antolin'en Baseleizea baiño apur bat gorago. An ille batzuk igaro genduzala uste dot eta San Antonio egunaren inguruan andik Begoña'ra joan gifian, Boni'ren etxera. Emen egun bi estu ta larri igaro ondoren Ronda kalean bizi zan Fika'ko alaba baten etxera. Egunik geiena trenaren mendi-zulo baten egiten genduan, baiña egun baten entzun al izan genduzan Bilbo'ra jausi ziran lerkai batzuren zaratak.

Bilbo arerioen eskuetara jausi zanean, oiñez etorri giñan etxera, burdia aurretik dala. Etxea obus batek zulatuta aurkitu genduan, baiña biziten asteko ondo. Etxe inguruan bedarra aundi eginda, iñoz ez lez. Anai zarren biak Bilbo'tik aurrera joan bear izan eben eta Zalla-inguruan, Otxaran'en igaro eben gudaldia.

Ume-aldiko gomutakiak! Gudearen ondoren larriak! Bakea maitatzen ikasteko bideak!

OLAZAR'tar MARTIN'ek



ERRIAK

LENIZ'KO GATZAGA

Erri txiki au Bergara'ko AUZI-BARRUTIAN dago; Lenitz bailarako atzenengo erria Araba aldera.

Lenizko lau errietatik bizilagunez txikiena, ez lurren aldetik. Menditarte eta ibar txikien artean jarrita dago. Arlabango aldapetan bananduta dagoz beste guztiak, amar bat etxe izan ezean, oneik eleiza nagusiaren inguruan dagoz; 1552 oñen itsas maillatik, Gaztelarik gatzela Frantziarantz Gipuzkoako lenengo erria da. Bere mugak dira: Sortaldetik Ezkoriazta, iparraldetik Aramaiona eta sartaldetik eta ego-aldeetik Arlabango mendiak. Arrasate-tik 7 kilometrotara eta 17 Gazteiztik, iriburu urrea. Erriko etxea asko arresiz inguratuta arkitzen zan lenago. Bertan egoan dorre-etxe bat eta jende gaizkilea izan zalako edo bertan gordetzen ziralako Gaztelako erregeak edo agintariak deuzestatzea agindu eban Oiñaztar eta Ganboitarren guda sasoian.

Bertako bizilagunen kopurua ez da 785 baiño andiagoa izan iñoiz.

Toki onera ez da eldu gure guda-ostean erbesteko jenderik lanaren billa.

Emen ez dira jaso olako edo fabrikak beste Lenizko iru errietan legez.

Emengo jendea nekazaria da eta euren baserrietan bizi dira, naiz ta aldapa andietan bizi.

Armarri, Mairu-Arri edo erredolak Gaztelu bat eta bere alde bakoitzean baten kaldera bat bertako ola baten zeregina gatza ateratzea zala gogoratzeko.

BASELEIZAK

Erri onetako lurren barruan iru baseliza arkitzen dira SURTIZA'ko MARTIN DEUNA GAZTELU'ko AMA, oso aintxinekoa eta bertako arlanduaz egoki eginda.

Eleiza onetara, joaten dira, euren SARIAKAZ mutil TXIRRINDUZALEAK Ango AMA BIRGINAREN babesean ipinten euren neke, arrisku eta lan guztiak.

Urtean urtean batzen dira leku orretan txirrindulari asko ta asko naita SINISMEN aundirik ez euki, baiña badakie arrisku ikaragarrietan dalbiltzena eta orduan USTE barik zuzentzen dira BERARENGANA.

Azkenez Sta. KOLUNBA, baseliza.

Berriz gogoratu bear dogu, Arlaban gain-ganean, gure GAZTELU'ko AMA baiño apur bat gorago, aurkitzen dala BENTA-BERRI deritxon tokia (leenago SURTIA baseliza), eta tokian orain OSTATU bat da.

Etxe enen tellatuak bialtzen dauz alde bateko urak Mediterraneo deritxon itsasora, eta beste aldekoak, KAN-TAURIKO itsasora.

Olan diño Esteban de Garibay'k "HISTORIA DE ESPAÑA" bere idazti politean.

ASIERA

Erritxu onen ASIERA ez dakigu noiz izan zan, baka-rik dakigu AINTXINEKOA dala beste LENIZ'ko erriak lez.

D. Tomas Gonzalez'ek bere "OAR-IDAFTIAN" agertzen dau oso aintxinekoa dala.

URI-IZENA emon eutson Alfonso XI'ak 1.33ln urtean. Beste askatasun edo eskubide batzuk be bai; ZERGA batzuk be kendu eutsozan erriari eta BERARIZKO LEGE batzuk emon be bai.

XIV MENDE arte, une baten ARABA'ri lotuta egon zan, beste aldi baten iñori be ez, ta denbora askoan Gaztelako Erregearen menpean.

Amalagarren MENDEAN, betiko lotuta gelditu zan Gipuzkoako Errialdera.

1458n. urtean Enrike IV'k, Gipuzkoako eskubide osoak emon eutsozan.

Orretaiko ESKUBIDE BAT izan zan, lur aretan ez sartzeko GATZIK, bertan egoalako gatzen ola.

Lege au zala ez zala, AUZI bat agertu zan.

1381'ean, diño kondairak alogeratuta eukan OLA ori JUDEO batek D. PEDRO MENDOZAK, eta au zelan zan erregearen ETXEZAIN, onek ERRIARI bere ESKUBIDEAK kendu gura izan eutsozan, eta azkenean ERRIAK irabazi eban AUZIA.

LANA

Gatzako bizilagunak basetxe askotan eta menditarte zabaletan banatuta dagozalako, jente onein lana BASO-LANA da.

Geienak abereak zintzen dabez.

Etxean daukazenetik ganera, eukiten dabez basoan ASKE abere, asko, zekorrak, beiak, zaldiak. Basoan jaio eta an ibiltzen dira ASKE Noizipefian bira bat egiten dau jabeak nundik nora dabilbazen eta beste geiago barik.

Naiko geitzen diranean atrapatzen dabez okelara saltzeko, etxean ilteko edo bizira saltzeko.

Onelan eskuko dirua ERREZ lortzen dabe, lan aundi edo neke aundi barik.

Orain lur zabal aundiak daukazanank piñuak ipiñi eta ERA batzuetan diru politak eta errezak ateratzen dabez.

Onelan oraingo OLAK edo fabrikak daukien ardura eta buruko min barik bizi dira PAKEAN eta lazaitasunean.

Oraingo URIETAKO naste eta presa aundi barik, bapo bizi da Gatza'ko jentea.

ETXEBERRIA'tar ISIDOR

VOLTAIREKERIAK

VOLTAIRE. Munduan ba-ditu bere lagunak. Edozein tokitan. Edozein arotan. Munduaren salbamena ots egin eta gizona iraindu naiz zapaldu, betiko, modatxua da lurrean. Zabaltasuna esan ta indarkeriz estutu, ona emen gizonen jokera.

Munduan, gizonen artean, amets aundi bat somatzen dogu. Gauza aundiak egiteko gogo dago. Asmo bikaiña da. Gizadia, larri-larri, deika dago. Jende pobriak, ots, dei egiten dau bere bear-izan ta estutasunean. Gure oinpeko lurak ba-ditu ostera ondasunak, ugari, eskeinka; gizonen semei jaten emoteko. Gizon guztiak, barriz, lan egiñez, lurraren frutuak, bizi izateko aiñean, bereganatzeko esku-bidea bizitzaz ta gizon izatez dauka.

Gizonen garrazi au guztiok entzuten dogu, guztioi dei egiten deusku. Karrazi gogorrez egin bere. Baiña gizonak, emen, banatzen gara gure griñen eratara zaldun eta oiñez-koen artean. Aldra bakoitzeko ontan be danak ez dira bardifiak, batzuk estuagoak, besteek zabalagoak, onek zuzenagoak, areek zabarragoak. Naste zabar au zergaitik sor-tu bear da, gizon izatez, bardiñak diranen artean...?

Nork nori esan deutso: zu anaia baiño geiago zara? Anaia menperatuko dozu? Zure otsein legez eukiko dituzu gizonak lurrean? Gizona eukiz, guzurrez, maltzurkeriz ta indarrez zapaltzeko eskubidea nork legetu dau gizadian? Ori egiten dauanak, nola esan legike: ni ongillea naz, anaiak gosepean daukezanak..., ni zuzena naz, zelan esan legike! Sinismen ta zuzentasun aldetik begiraturik, Kristok, garbi, esan eban: "Ni beartsuei barri ona zabaltzera nator, katiguak eta zapalduak askatzera". Nortzuk dira

katiguak eta zapalduak...? Nortzuk dira katigatzailleak eta zapaltzailleak... Nor ete dabil zuzentasunez eta Kristogaz? Baita au be esan eban Kristok... "Jaungoikoak errugabeak eta errudunak astertzen ditu; ta gogorkeria maite dauana, Arek gorrotatu egiten dau".

Onk dira munduaren Egillearen jakituri ta aginduen oiñarriak. Gizonaren izateari, berez, ondo jatorkoz. Baiña gizonak beste era batera jokatu nai dabe, diruz, indarrez, maltzurkeriz ta guzurrez. Ta zapalkeria argitzera ta askatzera Kristo etorri zan. Iñork eta iñor, iñola, zapaltzeko eskubiderik ez dau, ots egin eban.

Beste gogorkeri maltzur bat be ba-da munduan, Voltaire'k esan ebana: "Besteen aurka guzurrez esai zu beti, zerbait geratuko da-ta". Bide oneri be, ondo, deritxoe askok. Au guzur ta biraua da lurrean gaiñean. Askatasunaren alde urten, gizonen onaren billa ekin ta guzur zapaltzailleak besteei ezarri, beti, zerbait kaltegarri dana, geratuko dalakoan, au ez da gizonen egitea. Au zapaltzea, gogorkeria, ditadurakeria da.

Norberaren agindukeria garaille aterateko, orren bearizanean dagon gizona, ao minkaitzekoa da. Baiña ori ez bakarrik, buru ta biotza dollorkeriak baltzitu deutsoz. Ederkeriaren izenean on egiten dabela uste izan, buruari alan sinistu eragin nai, ta nauskeria, maltzurki, darabil barru guztian. Ta era ortan bizi al izateko, zer egin...? Beste ingurukoak laidoz eta guzurrez izen-baltzitu nai leukez. Ori da mundutar jokerea. Bien bitartean, zintzoak, egiz, direnak zapalduta.

PAULIN



"EUSKARA" DALA TA

Euzkera dala ta ez dala, ia ogei bat urte daroaguz zuzendu nairik. Alan ikusten da beñik bein iragarri guztietan, dana dala, musturreraño iguinduta nauka EL PROBLEMA DEL "EUSKARA" onek, ba, batez beste, egunero datoz esaten gure izkuntz gaixo onen buru edo zerbait dana, ez dabelako gura gaurko *"jakintsuak"* makurtu nai, euren buruan jausi jakoen erru madarikatua.

Ondo dakigun lez, millak milloi ondatu dira euzkera dala ta. Aurrerakuntza, ez dogu ikusi baizik, atzerakuntz aundi be aundia egin dau gure ele maitiak. Negargarria da ba gaztediaren artian ikusten doguna, gaurko giro lotsagarri onekin.

Gaur, gure izkuntzak, ez dauka eragingarri edo pozgarririk, notintzak gaztelarari emon dautso eta euzkera ikusten da leku guztietan basterturik, bai txaide, ardotegei (txikiteroak) eta nun nai, erdera baiño besterik ez da entzuten. Bata besteakin, ikusten dan lez, nastautta geratzen dira arreman guztiak gaztelarrez jo ta kei.

Oker au ez da bakarrik gaztearengandik datorrena, bai ikaslari ta bai ostantzeko erritar gizaki geienak, euzkera, bastertuta daukie eguneroko euren arremanetan, ikusten da ba euzkerak, ez daukala pozgarririk. Nai dana esango da eta milloiak farra-farra ibilliko dira baiña, errian ez dago euzkerarenganako zaletasunik.

Gaurko gizaldia, zearo gaztelar izkuntzara biurtuta dago, naiko izaten da aldra baten gaztelar izkuntz zale bat egotea, beste guztiak nastatzeko. Auxe berberau gertatzen da Ondarroa'ko batzokian, danok dakigu euzkera baiña, bat daukagu, euzkera jakiñarren bere jokera beti, gaztelez egitea dauana, ezin dala oitu, diño, euzkeraz jarduntzen eta dana dala, danok ipinten gaitu gaztelez izketan.

Nire uste, gure *euzkal urrutirudizkiña* ez da batere ongarria, urrutirudizkin ortan azaltzen dan euzkera, erriak, ez dau ulertzen bear dan lez eta gañera, euzkera atzekoz aurre orregaz, gu, jatorrizko euzkaldunok, gogaitu egiten gaitu zentzun bako erderakadakin.

Egun ontan, Euzko Alderdia, dirudian lez, euzkeraren gaitik edo euzkeratatz zerbait egin naian azaltzen dala uste dogu, alan erakusten dau beñik bein. Nik, ikusten dodana da gai onek, ez dauala aldakuntz aundirik eukiko, ze, euzkaltzain edo gai onen buruz agertzen diran buruak, betikoak diralako, esan daigun *"el batua"*koak diralako eta *"batua"* inguru ortan jarraitu bear badau, edo, bultzatu bear badau, alperreko bultzada izango da, ba urteetan, Alderdi'a *"batua"* aupatzen dabil eta orain ikusten dan lez, bultzatu nairik ba'dabil, gai ortan, nik esango neuke, ze girotako bultzada izan bearko dau?

Orain arteko alegin guztia *"el batua"*ren ganako alegiña izan da, ez dakit ba zer geiago egin leiteken, izan ezik, gu, erri izkuntz zaleok, *"el batua"* zaleak ez garenok, beartu egingo ote gaitue *"el batua"* erabiltera?

Iruña-Anaitasuna'ko batzar *"entzutetsu"* ortan, euzkeraren auzia, argi ta garbiko erabagia izan zan baña...?? Zer gertatzen da...?? Zergaitik baztertua izan da...?? An batzar artan, argi ta garbi esan zan, Alderdiak, euzkera

Euzkadi mallan, gipuzkera osotuan izan bear zala ta ez *"el batua"* zikin au, urtetik urtera, geroago eta buruauste gei-ago daukagun gure ele maiteakin, irlandesan antzera gertatzeko arriskuan. Irlanda'n diñuen lez, banaka batzuk irlandez itz egiten ei dabe, banaka orreik, irlandez itz egiten dabelako, diru laguntza ei daukie, agintaritzak, alegintzen ei dira irlandar izkuntzaren alde bafia...?? laguntza guztia ta alegiña, bapez beste ei da, erri osoak, ingelez naiago daualako, ta irlandar izkuntzak, zaletasunik ez daukalako.

Jazoera berberau etorri leike gure errian, lenbailen ez ba'doguz bear diran neurriak artzen eta, nire ustez, neurri oneik, Alderdiak, zirt edo zart egiten ez dauan bitartian, geroago ta naste geiago egongo da gure izkuntz ta aberriaren etorkizunakin.

Alderdiak, nortasun geiagokin jokatu bear dau EUZKADI'ren oñarritzaz, batez be izkuntz gaian, ikusita dagolako, ogei bat urte ontan, "LA REVOLUCION CULTURAL"ak, emon dauan ondorioa, ez dala batere onuragarria izan.

Zirti zarta ortan, Alderdiak, zintzo be zintzo jokatu bear dau, sabindartasuna jarkitzen, ba, zoritxarrez, gure aita Sabin'en ereduaz, tinko ta zuzen jokatu ez daualako, gaur gagoz buruauste askok.

Ezkerraren *eskerrak*, norañoakoak diran, egiztatuta dagoz gureganako adiskidetasunetan, eta, ordua da norberen nortasunakin jokatu, ba, gure arerioarentzako, alperrik egingo dira erriarenganako gauza eder ta onak, ba, beti egongo diralako atxaki-billa.

Orregaitik ba, egin daigun egin beardana eta, irizpenak, bardin bardiñak izango dira. Dana dala, ez gaitzen ibilli ezkertiar eskuz esku, Alderdi'a Sabin'ek ez eban sortu atzerri ereduak oiñarritzeko, baizik, jatorrizko euzkal ereduak oiñarritzeko.

Bene-benetako abertzaleak ba'gara, gomutaratu gaitzen euzkal gai guztietan gure Sabin maitiak, ortik daukagulako iturririk onena.

Baita be esango neuke, abertzale izatia, ez dala bakarrik Alderdian bazkidezea, Alderdikoa izateko bete betean, eragozpen bako sabindartasunez jokatu bear dalako, Sabin'en esaneko duintasunekoak izan bear dogulako eta, Sabin'en ereduak, ez daukalako aldakuntz bearrik.

Sabindartasun bako euzkotarrak, nire eritxiz, *"progre"* orreik, ez daukie eskubiderik euzkal gaietan edo EUZKADI'ren benetako itun erabagietan artu-emontasunik, edo, aintzakotzat artu bearrik. Sabin'en ereduak, argitaratuta dagozalako Alderdia sortu zanetik. "Progresistak" gora goraka ta arropuztuta dabilatz "REVOLUCION CULTURAL"an bitartez lortu dabezan gauzakin, batez be, EUZKADI "S"kin "EUSKARA" BATUA nastaua eta IKASTOLA'ren aginteduntza eurenaganatuaz.

Negargarria da baiña, Alderdikide geienak, gai oneik uste dabe, olan izan bear dabela ta pozaren pozez ikusten dabez KORRIKA ta beste oztantzeko zalaparta guztiak.

EUZKADI gaixua...!! danon artean ilduratuta zagoz.

GORRI

MOGEL'EN "ONEEK"

ZER aldizkari onetako 106'garren zenbakian, "Oneek ala oneik"? idazlantxoak irakurri dot.

Neure ustez bere, Mogel'ek "oneek" erabilten daukate beste bagarik, era ori idatzi bear izatea ez litzake egoki izango. Eta bat nator idazlan-azkenean esaten danaz: "3, 5 eta 2 errik, Bizkai'ko beste erri guztiak baiño indar geiago izan daike?".

Ba-dakit Mogel'ek bere "Peru Abarka" liburuan darabilten euskerea aberatsa dana. Alan be, Mikel Zarate'k diñoana be aurrean izan bear ("Bizkaiko Euskal-idazleak", 48 orri.): "Ba ditu izan akats batzuk euskera aldetik, joskeran batez bere".

Jakiña; nok ez daukaz obenak, okerrak, utsak? Orre-gaitik, ba, Mogel'ek berba orreik —*oneek, orreek, areek*— orrela darabizala-ta, itsu-itsuan onartzea ez dot uste bide zuzena danik.

Zarate'ren liburu berean ikusi daikeguz Mogel'en era batzuk; esaten dabee = dabe; apaindu leikiala = leikela; utxaan = utxan; baiña ezagutuko ez leukee etxekotzat = baiña ez leukee etxekotzat ezagutuko; dago espillu au txarto egiñik = espillu au txarto egiñik dago; ez entzun egia diñonik = diñoanik; neuskezuz = neuskizuz; aurkitu neban uleai tiraka = uleai tiraka aurkitu neban. (Guzti oneik orrialde bitan datoz.) Eta orrela beste ainbat eta ainbat.

Ba-leiteke batzuetan zure eretxia ta nirea bat ez izatea. Esate baterako: urtarrilleko "Aranzazu" aldizkarian, 5'garren orrialdean, esanaldi au dakar Aita Villasante'k: "Gizonak ez du hil nahi; gizonak nahi du beti bizi". Nik neuk, ostera, beste onetara esango neuke: "gizonak beti bizi nahi du". Eta Villasante berak, 6'garren orrialdean (definiño lez dakaz, eta ez beste esanaldiri lotuta): "fedea da ikusten ez duguna sinistea". Nik, barriz, beste onetara: "fedea, ikusten ez duguna sinistea da", edo, "ikusten ez duguna sinistea da fedea".

Jakiña, ondo be ondo egongo litzake esanaldiak onetara etorri ezker: "Yon'ek: —Itxaropena, ikusten doguna sinistea da. Peru'k: — Fedea da ikusten ez doguna sinistea, eta ez itxaropena."

Bizkaitarrontzat, beintzat, argi dago.

ORRIAK ETA AIZEA

Orriak ziran, bizitzadun orri urduriak, eze ta atseginkor, eguzki dirdirapean. Orri orlegiak ziran, orri agurkariak, inguruko ikuspegizko edertasunpean aizearen laguntzaz sorturiko durundiak orriz orri, alkarbidezko egaztadapean soñuturiko urrundi urrunen agiriak.

Orriak eta aizea, itxastar kresalpean alkar-besarka mintzo eztiz, ta, alkar pozturik, udaldiko egurats argiaren egoitzapean bakoitzak azalduz beren amets ta, egarriak, orriz orri dantzari, aizearen ikutupean oskatu ziran unearen ederra daztaturik.

Orriak. Orri talde eze ta soñulariak, ortzipe urdiñez an, egaztadarearen ertzean. Orriak ziran bai ta, urrundi albistariak; orriak ta urrundiak zurrumurrus beteak, kitarra baten ariak lez, ibilli luzean, maixuki joten ebazan eres-notak, aizeak.

Aizeaz zetoan bai, urrundietako ipuiñez, orrietan zurrumurka, lurralde ikusgarriak, beren mendi ta lautadazko oroitzapen maitez ta, berein izkuntzazko edesti ta, oiartzunez, beren igarozko zeruetako euri, odeipez aizeaz zetoan bai, lilluradun irudiak orri txalopintxalozko egun atsegin batez eremuz, itxasoz, urrundietatik igorriak.

MUNIATEGI-tar SABIN

ERRIAK

EZAGUTU BIZKAIA (Errigoiti)

Idazpuru au dabela, sarritan ikusi doguz ikuspegizko argazki ederrak, gure Bizkai'ko eta beraz Euzkadi'ko ikuskizun ikusgarriak, baiña, ainbat ederragoak dira gure lurralde asko, eta jakingarriagoak bertatik ikusterakuan: Onetariko bat iruditun jaku bere izenak adierazoten dauskun Errigoiti goi-erri baketsua.

Ez dago esan bearrik, sarritan egonak garala erri orretan, Maiaga (414 neurkin) eta Bizkaigane (415 neurkin) dituen menditxueta aurkitzearen, bada, mendi-kozkor orreik dabezan ikuskizunak zabalak dira, eta beraz, atsegingarriak bere lurraldea maite daben euzkotar batentzat, Bizkai'rik geiena eta bai-ta Euzkadi'ren lurralde aundiak ikusiten diralako bertotik.

Errigoiti'ko uria (Orretara da bere "Uritasuna" dau-lako), basetxe zabal ederrez omituta dago, euretariko asko utsik, erdi-utsik edo zaarrak bakarik bizitale dirala eta, nai-ta lur aberatsak izan, lurralde asko lurgindu barik, bedar-landa eta bai-ta larren batzuk lerdi edo piñu baltzez ezalduta.

Geien bat, iru auzo-unetan banatzen da; Eleizalde, Uritxua eta Metxika, beren eleizatxu apaiña beronetan dabela, Laurentzi donea jabole dabela, nai-ta Jon deuna ospatutzen daben bertako jai berezizat. Metxika'n Egoaldera aurkitzen da lenago aitatu dogun Maiaga mendia, dana piñuz jantzita, naita bera izan Gernika-aldeko ikuspeirik bikaiña. Eta Sarkaldera Bizkaigana izenez eza-gutzen dan mendikozkorra, beronen gaiñean dauala Gurutze deunari zuzendutako basatxonu edo ermitatxua.

Basatxonu onek Francotarrak ipiñitako ormarri bat eukan lenago, baiña orain, bera aurkitzen zan lekuan bertan Euzkadi'ren marraski ondo egindako irudi bat aurkitzen da Errigoiti'ko Udalak ipiñita, Euzko Gudarien orri-garriz: Onetara diño berak "Bizkaigane. 1984 Errigoiti'ko Udaletxeak, 1836'ko gudan hildako gudarien omenez", Euzko gudari lez, eskerrik asko Errigoiti'ko Udala!

Basatxonu orreri argazki bat edo beste egiteko, beste askotan lez arduratu nintzan Bizkaigane edo gana, muño ori izanik, Bizkaia non aurkituko dan. Ba-leiteke izen ori mendi onen Ipar aldera aurkitzen dan Busturi Ibarrean Merindadean Bizkaia Jaunerri lez sortu zalako gure edestiak adierazoten dauskunez, nai-ta euzko-erriak daukazan urteetarako, barria izan izen ori.

Nai-ta Errigoiti guztia ikuspegi bikain bat izan, batez bere izadi-zaleak geranontzat, beste ikusgarririk eta jakin-garririk be ba'dau eta, orixegaitik bertaratu gintzazan Jorrallaren lenengo egunetan, beste adiskide on bat lagun

gunduala eta, bertaratuaz batera itandu genduan apaiz jaunagaitik, bada, bertako eleiza ederra, euzko-gotikoa, nai-ta aldare-buru bi beintzat "barrokoak" dituan, ondo ikusi ta bertan daben kutsua Soin deun edo gorputz Santua, ikusi ta zerbit jankingurez. Eleizinguruan aurkitu genduban Mikel apaiz jauna, era onekoa ta oso jaun begikoa. Geure itaun guztiei oso txairo erantzun eutsen eta beste azalpen jakingarri asko be.

Soin deun ori, Idiabaltzaga'ko txadon, eleiza eder ori egiten asi ziranean aurkitu ei-da, XVIgarren gizaldi inguruan, ba, Miren doneari ezkiñita aurkitzen dan txadon ori 1564'an amaitua izan ei-zan. Ekainean, Andoni deuna'ren urrengo igandean ospatutzen zan osperik aundienaz orren jaia eta, pizka bat izketan atzeratuta etozan umeak eroaten ebezan Soin deun orren eskuari mun emoten, izketan, berbaz arindu daitezana.

Aitatu dogun txadon nagusi orren aldamenean, beste txadon txikiago bat aurkitzen da, bearbada txadon nagusia baiño askotaz lenagokoa, aldi onetan ederto apainduta, goi ta be, Padua'ko Andoni deunari zuzendutakoa. Beronen beak apainduteko arakatu ebezenean, ainbat azur atera ei-ziran eta Aita Basabe buru zala eroan ei-ebezan bear ziran aditapenak egiteko, baiña, Aita Basabe il zan esketiño, ez dabe geiago orrein barririk.

Eleiza nagusi ori be; ederto barriztuta, barriztu barri ikusten da, eskerrak Mikel apaiz gazteari beste zerbait geiago bere egiteko asmuz, bada, eleiz-ondo ortan dituz Zornotza'tik bertako Udalaren bitartez, ekarritako arri-landu mordoa, zerbait edesti dabenak. Mikel jaunak, eskerrik emoteko agindu euskun Zornotza'ko Udala'ri eta, orretara egiten dogu, pozik egin bere.

Eleiz-inguruan, goi-belardi zabalak ditu Errigoiti'k, pelota-toki, lenagoko ikastola ta abar. Eta, bedar-landa eder orretan ainbat zugaitz-landara barriak sartuak ditu apaiz gazte langille orren bitartez. Ori da gizon zintzoaren iraupena.

Beste gauza jakingarririk eta ikusgarririk bere aditu leiteke Errigoiti'ko goi-errian baiña, sail dago idazlan baten irarritea. Obeto izango litzake gure irakurleak noiz edo bein aixe garbiz gozatuez egun bat edo beste erri orretan igarotea, ziur gagozclako ez jakela iñoz damutuko.

Eskerrik asko Mikel apaiz argia, emon zeuskuzan argibideakaitik.

ALTUNA'tar JOSU

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA GAZTEIZ'KO JAURLARITZA BERRIA

Gaur, beti bezala EuskalERRI ontatik mundura begira jarri naizanean, zalantza larria sortu yat idazlan ontarako gaia aukeraterakoan: Errusi?, ala Euzkadi berriro?

Euzkadi'tzaz berba egitea erabaki dot azkenean, Gorbaxofen asmoek Errusi'ari buruz itzegiteko gero ere adontasunik aski emango dauskulako, eta bereiziki, Gazteiz'ko gure Jaurlaritza munduko beste gauza guztiak baiño gureagoa dogulako.

Gaur ain zuzen, Ekaiña'k 12, aurkeztu da Gazteiz'ko Legebatzarrean gure Jaurlaritza berria: EAJ-ko abertzalez eta PSOE-ko sozialistez osotutako Jaurlaritza.

Zer esan?

— Ez euskotar bezala, ez euskaldun bezala, ez kristau bezala, ez yakula atsegin gure Jaurlaritzan sozialistak ikustea. Sozialismuaren aurka, —sozialismua sozialismu utsa danaren aldetik—, ez dogu ezertxo ere; baiña bai PSOE-ren aurka. Zergaitik?

— Psoetarak zearo espānolistak diralako. Gazteiz'ko Jaurlaritzan sartu diran pesoetar oiek ^noren alde jardungo dira gure Jaurlaritzaren barruan? Euzkadi'ren alde?, edo Espāni'ren alde, au da, Madrid'ko Jaurlaritzan dagozan beren adiskide ta lagun pesoetarren alde? Sozialismua, emen beti-beti-beti, espānolista izan da; eta da. Ortaz, Eusko-Jaurlaritzan espānolistak sartzekotan, ez dogu Eusko-Jaurlaritzaren bearrik. Naikoa dogu Espāni'koa. Izan ere Eusko-Jaurlaritza bat sozialistekin, nola izan dai-teke Eusko-Jaurlaritza?

— Euskotar izatea baiño garrantzi geiagokoa da guretzat euskaldun izatea. Besterik gabe euskotarra da ba, izpirituz eta kulturaz beintzat, naiz gorputzaz ez, euskalduna dan guztia; eta izpiritua, gogoia, garrantzi geiagoko gauza bait da gorputza ta odol utsa baiño.

Pesoetarrei berriz ez zaie sekulan euskeragaitik axolarik izan! Alderantziz, euskeraren etsai amorratuak izan dira gure bazter guztietan. Gogoan dot nola gure gazte-denboran "habla en cristiano" Tolosa'ko pesoetarrek oiugiten euskuen! Gizon bat bakarrik ezagutu dogu pesoetarren artean egiatzko euskerazale gartsua: Eibar'ko Toribio Etxeberria euskal-idazle maitagarria. Adiskide izan neban. Berak bere eskuz opalduak bidali eustazan Karakas'tik bere liburu guztiak. Gazteiz'ko apaizgaitegiko liburutegian dagoz orain, ara eraman bait nebazan nik irakurri ostein, besteetzat ere jakingarriak ziralaren ustein.

Toribio agurgarriaz landa, beste pesoetar guztiak gaztelaren ereile izan dogun EuskalERRIAN. Kastellanoak, espānolak!!!

— Kristau garanaren aldetik ere zalantzagarri yaku pesoetarrek gure Jaurlaritzan ikustea. Bana-banan, Jaurle berri oiek kristau diran edo ez, ez dakit. Baiñan bai, bada-krit PSOE kristaua ez dala; marxista dala Alderdi-lez, eta,

naiz isillean, Espāni'ko Jaurlaritzatik kristautasunaren aurka gogor ari dala esku biguiñez lanean.

Gure Jaurle sozialista oiek kristauak ez izateak, ez leuskit kezka geiegirik emango, ezta PSOE kristau ez izateak ere, kristautasunaren aurka ez dirala asiko jakingo ba'neu..., baiña kezka aundia ematen daust PSOE, naiz berak orain isillean gorde—, arras marxista dala jakiteak, marxismoa erlijioaren barrutian ez bait daiteke neutrala, alderik-gabekoa, izan. Ezikuntzari eta kulturari dagozkienetan, zer politika-era daroa PSOE-k telebistan eta irratian Madrid'ko Jaurlaritzatik? Izaten ote dau egun aste bakar bat, kristatasunari iraiñik egiten ez dautson aste bat bakarrik!

Orregaitik, ez dautsogu oso begi onez begiratzen Ezikuntzako ministerioan sartu diguten Rekalde sozialista orri, ministerio ori bait da, ain zuzen, kulturazkoarenarekin, danetan garrantzitsuena. LOAPA sartu naiko ote dausku gure ikastoletara ta ikastetxeetara? Ez euskaldun lez ez kristau lez, gu ezin gaitেকে LOAPA-ren alde egon, lege ori oso-osoan erakuskintzarako askatasunaren aurka doalako.

Ez du balio aundiegirik Rekalde PSOE-ko alderdikide ez izateak, Jauregi pesoetarrak esan dauskunez "Eusko-Jaurlaritzara PSOE-k sartu dauzan Jaurle guztiak bete-betean PSOE-ren girokoak bait dira". Pesoetarrak, beraz; kastellanoak; espānolak; ez-kristauak; edo beintzat oso-oso kristautasun mottelekoak.

Jauregi bera ere ez yat batere gustatzen. "Espāni'ko Jaurlaritzaren Ordezkari lez Euskadi'n ez zuala akademi bat besterik onezagutuko: Euskaltzaindia", esan eusten bein batean, EUSKERAZAINTZA'ren izenean euskal-arazoetaz itzegitera joan nintxakonean. Pesoetarra izatea zentralista izatea bait da: "Laterri bat (al ba'da) Alderdi bat, eta Akademi bat".

Jaurlaritzan ez genduan sozialistatik izango EAJ zati-tu ez balitz. A! nolako erru galanta, zatiketa ori egin daben abartzaleen errua! Nik ez dot esango nor diran errudun oiek, baiña bai, esan gura dot, izugarria dala, Euzkadi'ren, euskeraren, eta Jainkoaren aurrean, errudun oien erantzukizuna.

Jainkoaren aurrean, bai! Izan ere laister bait doguz udaletarako auteskundeak, eta abertzale itxu oien erruz, udal asko lau erkietan hatxebetarren eskuetara jausiko bait dira. HB, berriz, komunista da, EE bezala, eta kristauoi ez yakugu zillegi gure udalak komunistei emate ori. Ez ote dira gure abertzaleak, bakoitza bere jainkotxikia aztuta, datozen auteskunde oietarako bir-alkartuko?

Ez beie esan beintzat abertzaleak diranik ori egiteko gauza ez ba'dira.

LATIEGI'tar BIXENTE

BINGEN BATIZ, OLERKARI

Eleiz-gizona da Batiz, karmeldar. Eta eleiz-gizonak, nire ustez, olerkari izan bear dau. Erritik jagia, lurretik, izaditik, danok daroagu izatean politikazko olerkia, eta beronek bizkor-azo bear gaitu guztiak.

Eleiz-gizona, erriko seme danez, eta erlejiño arazoari emona, giza-batasunean ari da. Edo ekin bearra dauka. Zelan? Olerkari izango da, poesia ta ederra jaso ta gizar-tean ereiñez, azirik bikainena zabalduko dau, goi-azia jakiña, eder betikoa; eleiz-gizonak Jainko-itzaen soloa landu bear dau gauza guztien gaiñean.

Apaizak edo prailleak erriaren aurrean lan dagi, agiriko gizona da. Eta agiriko langilleak, eleiz-gizonak batez be, gozotasun ederrez kutsatu ta asetua agertu bear dau, maitasuna, bakea, otzantasuna, poza dariola. Erriko eredu ta biotz-erakarle; egiazko poetak orrela izan jatzuz aldioro. Udabarrian, egun-argitzez bat, txori talde kantari: zuretzat ikasbide eleiz-gizon olerkari.

Gizaseme

Aita bidezain ebalarik, Gerrikaitz'en jaio zan gure Batiz, 1907'ko abenduaren 23'an. Gero, bere ume-egunik geienak Markiña'n egiñik. Ibiltari aspergaitza, ez da gitxi dantzatu munduan zear; gaur, alan be, geldi samar dauka-gu Donostia'n Amara'ko karmeldar komentuan, urte mor-doaz abailduta.

Gaztetxo zala karmeldar izateko gogoaz oarturik, Naparroa'ko Billafranka'ra zuzendu eben nagusiak, antxe osotuaz lenengo ikasketak, eleiz karrerak eskatzen dabezanak ain zuzen. 1923'ko urriaren 12'an artu eban karmeldar jantzia, urrengo urtean, 13'an, profesia txikia egiñik. Ikasketak erdi-amaitu ta Kolonbia'ra joan ondoren, an Leiva errian mezakotu zan 1931'ko garagarrillaren 19'an. Medellin'en be egotaldi bat egin eta emen gexoturik, Euskalerrira biurtu zan, Larra'n eta Begoña'n bizi izanaz.

Gero, 1936'ko burruka, istillu ta zaparradak. Guda oiñean ibilli zan gudarien kapellau, eta azkenez, giltzapean, Begoña, Nanklares, Dueñas eta Karmona'n, guztiz iru urte. Karmona'tik urten ebanean, Euskalerritik kanpo bizi izateko zigorra emon eutsoen eta Santander'ko Soto-Iruz'en igaro zituan lau urte. Emendik Peru'ra aldatu ta Trujillo'n eta Lima'n bizi izan zan bost urtez. Gero barriro Kolonbia'ra ta Panama'ra, ta ostera Kolonbia'ra ta orrelaxe, tarteka Euskalerrien be egotaldiak egiñikan.

Olerkari

Praille ta olerkari dogu Aita Batiz. Noiz asi jakun idazten? Ikasle zala nunbait. Donosti'ko "Argia"-k urtero bere Egutegia atera oi eban, ta 1936'ko zenbaki edo urtean, Barbin'ek izenpetuta, Aita Batiz'en ipuin bi datoz: "Ixaka artzaintxoa" ta "Potolo", guztiz polito moldatuak. Gero, bere mixiolari lanak albora itxi barik, beti jarraitu izan dautso idazteari ta olerkigintzari, lanak izenpetzeko "Batiz'tar Nikola", "Barbin", "Xalokin" eta abar erabillirik.

Euskera gozo ta oparoz adierazten ditu Batiz'ek bere barne-sentipenak. Era askotakoak adierazo be, geienak eleiz-gizon danez goi-jariozkoak dirala be. Ortik gaiñera ez dabil txarto, koplarik bikain sutsuenak bait dira goitar kutsuzkoak. Beeko loaia goitiko euriak ikuzten. Ipuin arloan ez dau gitxi idatzi, sariak be pitean pitean eskuratuz.

1938'an, Nanklares'ko apaiz-espexean egoala, olerki bi ondu ebazan guztiz sentokorrak: "Txori lotuak mendia ames" eta "Begoña'ko Andra Mariari otoy". Ona euroatik estrofa bana:

Bata: "Lengo txorien doñu ordez,
Capronni beltzak arrano lez,
Euskal-Erria su ta garrez
triska, birrindu, suntsi nayež."

Bestea: "Zergaitik, Ama, bakean ordez
daukagu guda gogorra?
Zergaitik lengo pozen lekuan
eruan bear zigorra?"

Olantxe samur ta sakon darrai, lan bietan, olerkariak. Bigarrena edu onetan amaitzen dausku:

"Bizkai Zaindari ta Ama zaitugu;
zaindu, ba, Bizkai maitia!...
Euskal-Erriko Erregin zara...
"Azkatu" Euskal-Erria...!"

1957'an Tumako-Kolonbia'ko El Charco deritxon eritxoan mixiolari egoala "Ezin dut, Jauna" izenekoa argitaratu eban EUZKO-GOGOAN. Ezin zituan, antza, baltz areik bide onera ekarri, ta Jaunari diñotsa:

"Ezin dut, ez, Jauna, ezin dut eraman
sorbaldala gaiñean gurutz ain aztuna:
bidea baidut latz, gogor eta illuna,
eta nik indarrrik gutxi dut neregan."

ELERTIA

Atzerriz atzerri Kristoren Itza zabaltzen mixiolari egillen arren, amak ezarri eutson euskal garra izate barru ondo josirik eroian beti. Maite eban euskera. Panama'n egoala, 1967'an, onela eio euskun amalauko au:

Kantari izan nai nuke, olerkari,
zuaitz abarrik abar, txoriak lez,
abesten jardutzeko goiz ta arratsez
zeru lurren Egille Jainkoari.

Bañan ez-jakiña naiz t'ezin ari
gure ele zarrak ditun itz ederrez
ta beste izkerakin nik deus nai ez;
damaiodan, ba, oro Euskerari.

Gure aiton maiteen mintzo zarra,
ludiko izkuntzetan goxoena,
Jainkoa goratzeko zu bakarra!

Zu Euskal-Erriko altxor bikaina;
euskal semeentzat zu ederrena;
zu gure oitura ta enda-zaina!

Karmeldarren arteko oitura da, bat-edo-baten jaiotz-eguna ospatzean, bazkaritan-eta, bertsoak abestea. Olako ainbat daukaz Aita Batiz'ek, batez be Markiña'n egoalarik egiñak, Lon Arteaga, Luis Baraiazarra, Lino Akesolo'ri, Panama'n egoala Aita Telesforo Larrazabal'i ta Colon'go katedralean Markos Zuluaga gotzaiñari eskiñiak. Ba-daki, beraz, balioko gizasemeak goresten.

Biotz aundikoa koplari danik ezin dau iñok ukatu. Nik sarri idatzia dot Aberria maite izaten erbesteaz ibillita ikasten dala ondoen, eta gure Batiz'en lanak abertzaletasunez

gantzuturik dagoz. Bere bertsorik asko ta asko beintzat kanturako burutuak dira, neurriz eta errimaz egoki biribilduta. Markiña'n bizi zala, ango eleizan kantetako "Gurutz Bide" barri bat bear zala-ta, 1973'an barri bat egin eban bertsotan, zortzikoaz, bioztuna, amalau egotalditan.

Lanak jazteko irudi polit liraiñak artzen ez dogu exkasa. Irakur "Artzaia ta bildotsa" deritxona. Ameriketan osotua da, an mixiolari ziarduela. Ez da gitxitan jazoten au mixiño-lurrean.

"Txabolatean artzaia negarrez...
Ardi bat zaio galdu aitz-artean,
Arkumetxoa beeka aldamenean,
amatxori deika oiú samíñez.

Artzaiarentzat poz, atsedenic ez,
bildotsaren oiúak aditzean.
Maitero artu du, bai, magalean,
bere ontzitik esnea emanez.

Eta olaxe azi zun bildotsa,
egin arteño ardi ederrena;
ordun, bai, poztu zitzaion biotza!

Ardi ura baño ederragorik
etzun artaldean. Bera lenena.
Artzaiarentzat etzan onagorik."

Olerkariak zuzena daroa bere kautan; urkoari on egiñez doa bizitza zear. Bai, egiaz esan euskun J. R. Jimenez espaiñar poeta bipillak, erriaren onerako lan dagiana, gizaseme zuzena dala, olerkari bat.

AITA ONAINDIA

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

SARIKETA

GAUR TRINKATUA, BIAR IRAULTZALLE (4n. SARIA)

—Katagorri, egizu nozbait lan ere —difo etxeoandreak katua aretoan lo ikusita. Ankak tolestuz, bigungarri biurtzen urdallapean—. Lo egiteko bakarrik ez zaitugu bear etxean —eta ostikada bat emon deutso eskoiko oiñaz.

Katua itxartu eta aizetan ondatu da lastategi bidean. An, zalantzarik gabe, leku erosoagoa aurkituko dau lo egiteko. Lasto ganean biribil-biribil, burua atzeko anka artean gordeta, a zelango loaldi luzea ta baketsua!

Etxe berean txakur bat ere bizi da. Txakur baltza. Arratoi txakurra. Mustur itsusia, ule luze-zorrotz banakaz itsusitua. Arratoiak izutzeko edo... BAT dauka izena. Bizimodu erreza ta alperra daroa BAT-ek.

Bazkari ordua da. Txakurra ez da agiri. Katua maipetan dago. Gosearen-gosez azurretan. Agirian ditu saietsak narru azpian. Begiak tinko gorantz adi-adi, oarkaberen baten goitik beera aragi zatiren bat edo jausiko balitz.

Luzaro egon da orretara. Baiña izketan eta janean ari dira maikideak eta ez dira konturatzen katurik dagonik ere.

—Miau, miau —Katagorrik, emen nago iragarri guraz.

—Zapi, katua! —Eta astinaldi bat emoten deutso oin bata jasoaz etxe-jaunak.

Bizkor egin dau iges, ez urrutira. Laster dator barriro maipera gose da-ta. Ikusi dau etxeoandreak etortzen. Artu dau kollarakada bat eta bota deutso lurrera.

—Ez dozu asko merezi lo baifio ez dozu egiten eta. Baiña..

Onek bai arin iruntsi! Or amaitu da katagorriren bazkaria.

Etxe-jaunak:

—Andratxoa, ez egiozu katuari orrenbeste emon. Gosea kendu nai badau arratoiak eta saguak jan dagizala.

Jan bearke, bizi nai badau. Erasoten ditu, bai. Baserri aretan ez dozu arratoirik ez sagurik ikusiko. Batonbat agertzen dan bakoitzean an dago Katagorri arrapatzeko. Lan au geienetan gabaz edo leku ezkutuetan egiten daunez, etxeoak ez dira oartzen eta lo bakarrik dagialakoan dagoz. Alper-nagitzat emoten dabe.

Bitartean, firin-faran dabil txakurra. Erregeak baifio obeto bizi da. Txeraz eta laztanez inguratzen dabe etxeo guztiek. Batez ere etxeoandreak.

—BAT, BAT! Gose izango zara oraingoz. Ea, ba,

oraintxe jarriko deusut. Eta sorbalda-buru igurtzen dau eskuagaz polito-polito, maitasunez.

—Zu barik baserria arratoiz beteta egongo litzake.

Ez dau bere bizitzan sagutxo bat ere arrapatu. Esker-rrak Katagorri-ri...

—Zure usaina asmauta bakarrik iges egiten dabe arratoi-saguek,

Iñoiz ez dauanez arratoirik ez sagu txikienik arrapätzen, atxakiren bat burutu bear aldeztzeko.

Iru janaldi eder daukaz txakurrak egunero: goiz, eguerdi ta arratsalde. BAT eguerdiko janaldian dago. Ontzia goraño beteta aragiz. Aoa bete ala baiño aragi geiago artzen dau bakoitzean. Lau edo bost ozkada, burua batera ta bestera eragiñez, ta iruntsi ta iruntsi. Flo, flo, flo egiten deutso aoak aragia zeaztzen dauan bitartean. Aokada bakoitza bizkor irunsten alan ere. Irrika gosea baiño aundiago izan eta eperik ez, astiro ibiliaz, aokadea dastatzeko. Ganera, Katagorri susmau dau ondoan eta lapurtuko deutsonaren bildurak arinago jardutera ziritzen. Katagorriren bekaiza!

Urrin barik, ipurdi eta atzeko anka ganean jarrita, adigabe egiten, tripa zorriaren irrits jasangatzak, itxuran gaudituz. Ezkerreko begia aragirantz itzuliz, bere kautan:

—Arratoi eta sagu guztiak suntsitu ditut nik. Lan ori egin dodalako ez daukat zer janik. Onek, barriz, jan eta egurastu bakarrik egiten dau. Eta begira zelako ordaina. Alper eta nagi guztiak ez ete daukie gero bizimodu bardi-fia? Ori bazkaria!!! —Adurra barbar dario, lurra bustitze-raño, alboko janariaren zirrarez—. Zatitxo bat ere ezingo ete dot aoratu?

Lau anka ganean jarri ta urreratzen asi da.

—Uuuuuuu! —urrume txakurrak musturra illunduz.

—Jan gabe ezin naz bizi. Ostu bear deusat.

Txakurrak aoa bete-bete daukan unetxo baten, doan aizea baiño bizkorrago erabillirik eskoako anka-erpak, ostu deutso aragi zati ederra bere ontzitik. BAT bere atzetik joan orduko, Katagorri galdu da lastategiko ate-zulotik, bere gorde-leku ezagunean ezkutatuz.

—Au bai dala bizimodu tristea! Bizi nai badozu lapurretan jardun bear.

Lapurtua izan arren gozo egin iakon Katagorri egun aretako bazkaria.

SARIKETA

Ez dira ondo konpontzen Katagorri ta BAT. Obeto esateko. BAT-ek ezin dau eroan Katagorri-rekin bizi bearra. Bera alperra izan eta bestea fiña dalako? Ez dakigu. Bear bada, kontzientziak min emon.

Eguerdi ostean Katagorri, beti bezela, lurrean etzunda dago etxe-aretoan, begiak itxita, biribilduta.

BAT kanpotik dator. Atetik sartu daneko ikusi dau katua eta zalaparta zaratatsu baten badoa beraganantz asarre bizian eta irunstekeo eran.

Baifia, bai zera! Katua sutundu da eta, txakurraren agiñetatik bizkor irrist egiñik, ate zabaldutik ospa egin dau. Txakurra atzetik. Biak zein arinagoka. Areen jira-birak ikustekoak ziran!

Arri-kozkor ganetik, larra bigun, bide lupeztu eta po-xingoetatik zear, naiz eta katua ez izan ur zalea. Bustitzea naiago txakurraren agiñetan bere burua ikusi baiño.

Alako baten, katuak lexar mee luzea ikusi dau. Erpa zorrotzak eskilara biurtuz, an doa arbolan gora. Leenengo adarrean kokatu ta garailariaren pozaz:

—Miau, miau! —barre algaraka—. Axaxa!!! Igon, kapaz bazara.

Azpian txakurra ito bearreko ausitan. Eztarria ere laz-tuta dauka zaunken eragiñez. Noizbait nekatu da zaunka egiteaz eta etzun lurrean, onako au asmauaz batera:

—Egin zuk orain barre, gero egingo dot nik. Azkenengoaren barreak pozgarrienak. Noz edo noz azpirtuko zara or goian. Nik itxaron neike emen atsedentzen.

Luze egiten iako Katagorri-ri arbola-adar ganean kokatuta egotea. Ixilduaz ioakoz barreak. Tinko ta leiaz aztertzen ditu bere barrandegitik arerioaren mugimentuak. Onek loarena egiten, baiña zuur dago goikoa noiz jatsiko.

Begiak itxita oartu deutsoz Katagorri-k eta oineztu-abiaduran bota dau bere burua arbolatik beera eta badoa arrapaladan, BAT seneratu orduko.

Amorruz bete da au iges egin deusalako eta bata bestearen atzetiko lasterketa barriztu dabe. Arin dagien bitar-

tean, bakoitza berekiko mintzoan:

—Beti egiten deustazu iges, baiña ziur txeatuko zaitut gaur. Nire aalegifieri irri egiten deutsezu. Gaurkoak azkenengoak izan dira.

—Txakur itsusi orrek ez deust bizitzen izten. Atsedendalditxo bat ere ezin artu! Gaur arpegia emon bear deutsat.

Lauoinkaldian ibilteak aunatu ditu guztiz biak.

—Ezin dot arinean jarraitu —arnasestuka katuak—. Guztiz ebainduta nago. Oraintxe eldu da barruan gordeta daroadan neure nortasuna erakusteko ordua.

Bat-batera itzuli-erdi bat egin dau eta txakurraren aurrez aurre agertu. Asarreaz musturra zakartu, begiak sutan, belarriak tinkotu ditu, aurreko anka biak tentetu, atzekoak gogortu, baifia azur-giltzak tolestuz jauzi egiteko eran, bizkar-azurra gorantz konkortu. Dan baiño aundiago emoten dau. Bildurgarri agertzen, benetan.

Asarrez itsuturik dago-ta ez dau astirik izan txakurrak oartzeko katuaren sumin bortitza. Erasotzen dau. Aurreratzen da izu. Katuarenganatu orduko, barrero atzerantz dator. Aurrera ta atzera, aurrera ta atzera irunsi bear daualakoaren plantak egiñez. Ez da ausartzen, orraitio.

Katagorri arrotu da, zorroztu ditu bere erpak eta urreratu iakon baten "Miau" ozen-karrankaria bota eta, jauzi laster batez, aurreko anka bietako amar erpak josi deutsoz mustur itsusian.

Min artu dau BAT-ek, min etsia.

—Ii, iii, iii, ii, ii, ii! —irrintzi dagi ixildu eziñeko negarretan, mifiaren minberaz.

Belarri ta bustana apal, arinkada bigunean, etxe barruan sartu da eta, lotsaren lotsaz, okolu baten ezkutatu.

Katagorri oldozkor eta illun geratu da.

—Orrafio eldu bear errasoirik gabeko auzitxo bat konpontzeko!

LEJARTZA'tar SEBASTIAN

BIZKAIEREAREN ASTEA-1987

Orrillaren 4'an, astelena: Eusko-Jaurlaritzaren 50 urteak. ZUBIKARAI'tar Augustin'ek.

Orrillaren 5'ean, asteartea: Arrantzaleen oiturak Bizkaia'n, ERKOREKA'tar Josu Iñaki'k.

Orrillaren 6'an, eguastena: Euskal-liburuen eta aldizkarien argitalpenak gaur, LEGARRETA'tar Josu'k.

Orrillaren 7'an, eguena: Jaungoiko-Zale Taldearen kondaira laburra ta lanak. ONAINDIA'tar Santi'k.

Orrillaren 8'an, barikua: GERNIKA SUTAN (50 urte). AURRE-APRAIZ'tar Barendin'ek.

ORDUA: ZORTZIRETAN

KAMIÑAZPI BERE BURUA GARBITZEN

Aurre-Apr aiz'ek gogor astindu nau, neuk berari orretarako biderik emon barik. Orregaitik, asko mindu nau.

Ni lenengotik naz ZER'en irakurlea; baiña bere 76 zenbakiko "Bizkaitarrak Bizkaieraz" irakurrita, idazle lez be laguntzea bururatu jatan. Ta idatzita bai, baiña argitaratu barik daukadazan liburuetatik egokiena ZER'en argitarateko "Lau urteko neure ibillerak" eretxi izanik, bialtzen asi nintzan, zatika.

ZER'ekoai, agaitik edo augaitik, eusko abertzaleak irakurteko ez zala ona eretxi ba'jaken, baztatu egingo eben eta ez zan argitaratuko. Euren aldizkarian eurak agintzen dabe ta jkito!

Baifia ez dot uste orren txarra danik edozein alderditatik begiratuta be. Beintzat Ondarru neure errira joan izan nazenean, pozik irakurten ebela esaten bat baiño geiago etorri izan jataz.

Idazlan ori argitaratea ZER'eri apur bat laguntzeagaitik izan zan bakarrik. Ez zan izan aberriagazko neure jokabidea, denpora gatx areitan, ona izan zala erakutsi naian egindakoa, ez zan izan neure orduko ekintzak goratzeko asmoz. Ez; buruz bera ta apal-apal egin neban neure sarrerea aldizkari onetan. Ikusi daigun zer esaten neban lenengo idazlan artan:

"Nire adifieko euskaldun guztien bizitzako lau urte nabarmenenak guda denporakoak izan ziran. Baifia ni ez nintzan gudan ibilli; Prantzia'ra iges egin neban. Beraz, aberriaren alde egindako ezer andirik ez dot edestuko, arro ta pozik emon leitekezan albistarik iñori jakin eragitekerik ez daukat."

Ta alantxe, ezer bape anditu barik neure gauzatxoak esaten ditut. Aurre-Apr aiz'ek, berak eta euskaldun beste gudariak igaro zituen nekeak nireak baiño asko andiagoak izan zirala diño. Bai ori egia da. Baiña neuriak andiak izan diranik nik ez dot esan. Ta gaiñera ez naz asi gudan ibilli ziranen nekien ondoan neuriak jarten neure burua ondo jarri naian. Nik euskeraz idazteko aukera guztiak gondu edo aprobetxau ditut eta or be ba-egoala liburutzuren bat egiteko gaia, ta, alantxe egin neban. Eta gero, argitaratuko ez dodan ori ZER'era bialdu neban, zerbait bialtzeagaitik.

Ni Aurre-Apr aiz'en tokian ibilli ba'nintz, ezpai barik atarako neban libururen bat. Ori egin ba'Ieu, abertzaleta-

sunaren kondairaren alderdi eder bat erakusten lagunduko eban eta eusko literatura aberastu, gitxi aitatu dan gudako kontu onen barri lagauaz. Iñor ez zan beragaz asarratuko ori egiteagaitik. Beraz, berea da errua, gudako konturik idatzi ez ba'dau.

Nik kontu orreik, gudea amaitu ta ia ogei urtera idatzi nituan. Ez dakit Aurre-Apr aiz'en bizimodua zelakua izan dan; baiña nai izan ezkeru, astia beti artzen da olako gauzetarako. Nik sendi andi bat daukat. Egunean ordu asko eroaten eustan lana neukan, ta askotan jai egunean be lana egin bear izaten genduan geure arrain lantegian. (Geurea, esakera bat besterik ez da.) Gero musika banda-koa nintzan eta baita korukoa ta abesbatzakoa be. Kostako jakon berari nik baiño gauza geiagotan musturra sartzea edo bestera esanda, ni baiño asti gitxiagogaz bizitea. Ta alan da be, Jaungoikoak bakarrik daki zenbat paper baltzitu dodan. Bai, izan dau astia egin eban gudeaz idazteko.

Aurre-Apr aiz'ek, ni ez nazala abertzalea esan nai dau. Nire abertzaletasunari burlaz lez idazten dau; abertzale lez neure burua ipiñi ta eskubiderik ez daukadala idazteko, esan nai dabela ereisten jat, naita orren argi esan ez. Bai, abertzalea, aberriaren alde odola emon ta bizia emoteko prest dagoana da. Baiña orren besteko abertzalea ez izan arren olako zerbait ba —dala uste dot aberriaren izakera batzuk, gure kontuan ilten doian aberriaren berbeta, euskera, indartu daitean ainbeste lan egiten daben edonor.

Franco'ren aurka gudan ibilli ziranak ezkondu ta sendiak izan eban berakadarik andiena. Ez zan galerazo iñun euskeraz berba egiterik. Baiña abertzale lez gudea egin eben askok erdere artu eben euren berbetatzat, axe izan zan eurak euren umeakaz egiten eben berbeta. Ondarru'n eta kostako errietan eta baita barruko erri batzutan be euskera barra-barra entzuten zan baiño beste askotan zarrari bakarrik entzuten jakon. Upiñakaz ez natorrela esateko bat bakarrik izentauko dot, gure auzo Markiña.

Ta ni, gudeari iges egindako au, euskerearen alde ibilli nintzan; orduantxe sekula baiño gogorrago. Ia ogei urtean ixillik egonda gero, Zeruko Argia'n, 1956'garrean, Iturrondo izenordeagaz idazten asi nintzaneko idazlanak erakusten dabe ederto zelako kezka neukan euskereari buruz (Guda denpora arte Iturri-Ondo nintzan). Nire buruko

GUDALDIA

kezka nagusia euskerea zan. Nundik euskereari lagunduko ibiltzen nintzan. Abadeai, umeai dotriñea euskeraz izan bear litzakela esan, eskutitzez. Ta baten, euskerazko dotriñan azterketak egiten ez ba'eutsazan, nire semeak çz ebala Jaunartze Nagusirik egingo zemaia emonaz (Jaunartzea egin barik ez zan geldituko) lortu neban nai nebana ta Francoren denporetan euskerazko dotriñeaz egindako Jaunartze Nagusi bakarra Ondarru'n nire semea izan zan. Beste seme-alabak erderazkoaz egin eben, baiña ederto ekien euskerazko dotriñea etxean ikasita.

Escuela de Pesca'ko zuzendariari euskeraz pixkat bada be irakatsi egin bear leukeala esaten idatzi neutsan. Egia esan, berak ez ekian euskeraz. 1960'garren urteko ingurua zan. Ez neban erantzunik izan.

Gero, umeai gabeko euskerazko eskolea emoten asi nintzan, alkateagandik erdipurdizko baimena lortuta, Gero Laterriko ta mojetako eskoletan musturra sartzia lortu neban. Zerbait ordaindu (gauza utsa) ta baktxera erakusle lez gazte bi bialtzen nituan. Guztira lau. Neuk esaten neutsen zer eta zelan irakatsi. Dirua Etxebarria'tar Ixidor'ek emoten eustan.

Umeen euskera sariketakaz be arduraten nintzan. 1960'garren urtean Euskaltzaindia'ren izenean Alpontso Irigoien'ek eraldu zituanetara neure alabatxu bigaz joan nintzan. Orduantxe ezagutu neban, gero ain lagun andia izan neban Xabier Peña Albizu jauna. G. B. Gero Ondarru'ko udalak eraldutako sariketara joan giñan. Villasante, Irigoien eta Zubikarai izan ziran epai maikoak. Neuk irakatsitako ogeiren bat ume izan ziran azterketetan. Besterik ez zan agertu an.

Gero Txomin Agirre'ren il zaneko eun urtebeteten egin ziran jaietan, beste milla gauzen artean, umeentzako euskal sariketa bat ipifii genduan; eta jakiña, joan zan gure seme bat bertara. Ta Arrate'n ipinten ziran sariketetara be joan nintzan urte bitan, ume batzuk artuta; ta Elgoibar'en Felix Etxebarria aurrean zala ango bazkun batek eraldutakotara be bai.

Aldizkariak zabaltzen be alegindu nintzan. Zeruko Argia'rentzat eun bat arpedun egin nituan. Eta eurak egiten eben umeentzako aldizkari PAN PIN'ri beste eun bat arpedun egin neutsazan. Oraindik ba-daukat arpide zerrenda a iñok ikusi nai ba'leu. Denporeagaz PAN PIN'eri bizkaierazko orri bat sartzea lortu neban. Neure kontura egon zan orriaren ardursa. Illeko (illerokoa zan) bi milla laurleko kostaten jakun eta Bilbo'n bizi zan Xabier Peña'k eta Ondarru'ko Etxebarria'tar Ixidor'ek emoten eustezan baktxak milla laurleko. PAN PIN onegaz oraindik gogorrago jo neban. Zinera eroan neban bere

zabalkundea; nire izenean egoan eta bear ebanak niri eskatzeko esaten neban. Etxean daukat oraindik klitxa.

Euskal aldizkariak zabaltzen be makiña bat oinkada emon nituan. ANAITASUNA'koak nigaz gogoratu ziran aldizkariaren zabalkundea egitera urten ebenean; 1965'garren urteko azkenengo egunak ziran, Ondarru laga ta Ondarrabia'ra bizitera etorteko gengoza. Zubeldia'tar Iñaki Ikastegieta'koa ta Etxebarria'tar Prantzisko oriotarra ziran Arantzazu'tik etorri ziran gazteak. Pozik joan ziran Ondarru'n izan eben laguntasunagaitik eta bertan iñun baiño askotaz arpide geiago egin zituelako. Kresalara eroan nituan eta egun bitan duan egon ziran, jan eta guztia. Lenengo egunean nire bi semek lagundu eutsen etxetara joaten eta bigarrean Arrasate'tar Miren'en seme biak.

Eta beste euskerazko aldizkariak be lagundu neutsan zerbait, urtekoa kobrauten edo al zana egiten. Euskerearen aldeko zerbait Ondarru'n nai ebenak, nigana jotzen eben. Alantxe Umeen Deya'ren ardurea eroian aita Felipe Murieta'koak eta Zeruko Argia'ko aita Ladislao Bidania'koak. Ondarrabia'tik motor baten etorri zan eta antxe, bere atzean jarrita, Lekeitio'ra eroan ninduan.

Naita gauza andirik ez lortu auzoko erria dogun Barriatua'n be izan nintzan eusko aldizkariak zabaltzen.

Ta orriak be naikoa atara nituan, euskal aldizkariaren zabalkundea egiten edo euskal ikastolen alde ta abar esaten.

Ta iñok ez dagiala uste izan, olan ibiltea atsegin jatanik. Lotsatu be egiten nintzan ainbeste arpegi emoten. Naiago neban, bai, euskereak laguntasun premifiarik izan ez ba'leu, neu be neure sendiagaz obeto egongo nintzanda. Baiña bat edo batek egin bear eban,

Gero sendiko gora-bera batzuk bultzauta Ondarrabia'ra, andrearen errira, aldatu bearra izan genduan. Emen be al nebana egiten asi nintzan. Gerora, lengo abiadari laga egin neutsan. Euskerearen alde lana egiteko gauza diran gende barria sortu da; ta beste aldetik, zartu egin naz. Iraitlean igaro nituan 73 urte. Eta orain dala illabete batzuk jo ninduan gatx batek olako gauzetarako, apur bat makaldu egin nau.

Ta, idazlan au amaitzeko itaun bat edo beste egin bearra daukat. Euzkadi gure aberriaren nortasuna geien nabarmentzen dauan euskerearen alde egin dabena ez da abertzalea? Orrenbeste egiten dauanak ia illean dagoan geure berbetearan alde ez dauko bere burua abertzaleztat artzeko eskubiderik gudeari iges egin eutsalako?

KAMIÑAZPI

LARRITASUNA

EZIN DAUTSUT PARKATU

Euskalduna euskaldunen aurka asi!
Zer jazoten jatzu?
Zerk itsututen zauz?
Zeren bildurra zara?

* * *

Ara euskalduna. Begira!
Ama negarrez dozu. Zeure erruz.
Baztertuta saldu egin dozulako.

* * *

Ez ifiori errurik bota
ZEU izan zara-eta. ZEU!

Otsoa gure ardiak jaten etorri eta zeuk kortako atea
zabaldu.

Zelango saldukeria!

Non geratzen da orain, ba, gurasoen izerdia eta odola?
Non?

Arin aaztu dozuz.

Nork esango eban!

Min, bai, min egin daustazu biotz barru-barruan.

Nire biotzak negarraren negarrez odola dario.

Zeure erruz!

Nork parkatuko dautsu?

Baten batek, bear ba'da.

Nik ez.

"Oñaztar" eta "Ganboatar" asko dago oraindiño gure
artean.

Madarikatuak izan daitezala gizaldi ta gizaldi guztietan!

Koln, 87.4.4.
MARTIARTU
(28 urte)

PAPER ZURIZKO ITXASONTZIA

Ai, paper zurizko itxasontzia!

Nire eskuetan eder, jorankiro,

Dana biurtutzen jatsu itxaso

Kresalezko urbide goigarria!

Ume, egizu lo, or, gozo-gozo,
Eta, zoaz itxasoak amesturik
Ba, zure biotzean orain ez dago
Eraso bildurgarrizko lorratzik.

Argiturik zure norabidea

Ai! ez al dozu ikusten maite

Illargiak egindako bidea

Zu ibilteko nora-nai ta azke?

Kukuluaren zerutxu batean

Bizi da bai nire ur tantatxo,

Ai, Eguzki, ez eidazu eroan

Edozein eroitara aren soa.

Nire oñetakoak munduko lokatz

Zikinduraz bete-beterik dagoz

Baiña, nire biotzak, alan be, gogoz

Ta, sendo, aurrera darrai argirantz!

Txikia da nire itxasontzia,

(Nire bertsoa be ezta aundia)

Gura dabena sartu barruraño

Oldozkun beraren biotzeraño.

MUNIATEGI-tar SABIN


TERMINACHO" GEIAGO

Leengo egunean, arratsaldeko 7'etako irratian,
Radio Euzkadi'ko "speaker" andrazkoak "terminacho"
pillo polit au esan eban:

"Amodiozko kartak, ligatu, txantaje, prezio emoziona-
lak, tronpeta, eskribitu, eksitua, amodiozko konfesioa,
enzerraturik, broma, ridikulua, plazer, terraza, kapitulu,
periodikua, farola, industria, engrasatu, txatarrerria, moti-
borik, justifikaziorik, planta, konfesatu, ez dakigu parre
espontaneorik egiten, extrainatu, explikatua, desagertu, ..."

Berba apain guztiok —egia biribilla— bost mifuturen
barruan esan ebazan "seriozki". Nik, barriz, ezin iruntsi
geiago, eta isillerazo egin neban irratia. Ez da niretzat
"hiztegi moderno" ori. "Karroza" naz! Nire zoritxarra!

MEMAIA



URIBARRI URIZAR BIURTUA

(Durango, 1937-11-31, Pazku Eguastena)

Goizeko 7 rak inguruan adarrots eta kanpaiak iratzartu ginduezan, egazkiñak geunkazanaren ezaugarri.

Aldikadaxo baten errefuxioan baketan egon ondoren, normalidadea jo eben.

Gu, jantzi ta Santa Ana'ra joan giñan mezatara: 8 ta laurenak inguru izango zan bertara eldu giñanean. Illeta-Meza zan, eta bertan gengozala, lasterrera, barriro egazkiñak etozanen ezaugarriak.

Zenbat denporan egon ete giñan kanpaiak eta ega'zkiñen burundadea entzuten?

Minutu batzuetan bai beintzat.

Eta alango baten, draunbalada luze izugarriaz, abioiok euren bonbok bat-batera jaurti ebezan: segundu batzuen gauzea izan zan, minutu batera be ez zan eldu.

Oindiñok "normalidadea" jo barik, elizatik urten giñanean, Andra Mari jausita egoan eta bere aurreko drogeria sugarretan: drogeriako erregarriakaitik uste izan gendun.

Baiña oraintsu jakin dogunez, Durangon bqta ebezan subonbetariko bat izan zan axe.

Aitu eziña ain, une txikian egindako kaltea: Komentu Kalea, Santa Susana, Kurutzia ta Jesuitetatik asita, Andra Mari ta inguru guztia errekaraiño eltzen dan zatia beintzat kaltetuta guztiz.

Etxe barruetan, kale ta plazetan ainbat lagun zauritu eta illak. Santa Susanan, 13 moja illak (14 gna arratsaldean bere etxean) eta Bergararen neska gaztea; Jesuiten eleizan 27 illak euren artean A. Billalabeitia, mezaemoi-Uea.

Andra Marin, Morilla, Obiedoko kanonigoa zana, au be meza emoten, ainbat eliztarregaz batera illa.

Andra Mari aurrean, elizpe ta etxeetan be illak eta zaurituak... Eberdi ostean barriro egazkiñak: oraingoan, aldi luze bitan ibili jakuzan bonbak jaurtiten eta beeraiño jatsirik ametrailetan gura eben moduan.

Goizean erri barrua eta arratsaldean erri barruaz gainera inguruak bonbaz josi ebezan (su bonbak be baita) eta ametrailau jendea igesika joian lekuak, ainbat zaurita ta iUik.

Egazkiñak joanda gaua eldu zanean, kanposantuan 200'en bat gorpu ei egozan.

JORRAILAK 1: egazkinak inguruan, sarri urreratu baina bonbarik ez Durangon.

JORRAILAK 2, BARIKUA: eguasten arratsaldeko antzera, eberdi ostean egazkiñak etorri ta eurenak egiten ibili, erri barru ta inguruetan, bonbak jaurti ta ametrailetan.

Oraingoan, ospitalera jausi zan bonba bat eta moja bi zauritu.

Batzokira, "Astarloa Etxera" be jausi zan beste bonba bat.

Egun aretan estazifioko lantegiak suak artu zituan. Baiña urrean jende asko erritik urtenda egoalako edo, ildako askorik beintzat ez zan egon bear izan.

Urrengo egunetan, naiz eta frente inguruetatik egazkiñak sarritan Durango'rantza agertu, Durangon ez zan lerkai geiagorik izan.

Esan be egin da, Durangon Gernikan baifio be ildako geiago izan ete zan. Baiña Gernikan 3 ordu ta erdian jarraian izan zan bonbaketa eta uria kixkaldu egin eben ia osorik: Durangoko bonbaketak, 31'ko biak, goizekoa ta arratsaldekoa ta Apirillaren 2'koa, irurak, jarraian izan balitzez, ildakoen eta zaurituen zenbakia geitu egingo zan ziur.

Aldi egokia oraintxe litzake Durangon orduan ildakoen barri zeatzagoa izateko.

Durangok orduan, 8.797 biztanledun zensua ei eukan (Iurreta bertan sartuta). Baiña Gipuzkoatik etorritakoak asko ziran eta baita inguruetako errietatik etorriak baserritarrak batez be; euretariko asko be il ziran.

Eleizetan ez dagoz guztien izenak; auzitegiakoak eza-gertu egin ei ziran eta baita kanposantuko agiriak be.

Orrez ganera, orduko informetan zertzelada asko, bonbaketa egunak, kaltetu tab.enak nasturik dagoz. .

Esan geinkena auxe dala dirudi: Francotar naziok Durangon ikasi ebela "Gernikakoa" obeto egiten.

BELAUSTEGIGOITIA'tar MAITENA'k

BARREKA

OTO TA POTOTO

URA ETA ERRADEA

Askotan bizitza latza agertzen jaku. Senar-emazteak bakoitzak bere gurutza eroan bear, alkarri lagunduaz; baiña, Otok diñonez, ala egin bearrean, alkarri gurutza gogortzeko alegintzen dira.

Bodegoi zaarreko kuadroa gustatzen jakon Oto'ri, sukaldean eukena. Ara zelakoa zan: Gizontxo bat joian gurutzepean, gurutza eroan eziñik arrastaka; bere emaztea, barriz, gurutz gaiñean jesarrita lasai... Ori asko ez dala, eskuan eroian oiñetakoarekin burutik bera emoten eutson senarrari...

* • *

Ori orrelan ez zan Oto'renean. Ez eta gutxiago be. Euren gora-beerak izaten ebezan eta asarrealdiak be bai noizbeinka; baiña, andra Josepa emakume maratza zan, etxeari ondo begiratuko eutsona eta ortik ez zetorren kalterik. Gertatzen zana zan, Otok ez ebal sekula suerterik izaten negozioetan. Alderantziz gertatzen jakon lanbidea beti. Iñoiz asmatu ezin.

Orain be mandozain sartuta dabil, ardaoa Naparroan erosi eta Gipuzkoan saldu. Gau eta egun kamiñoetan zazpi mando zaar menperatu eziñik. Atzo gaueko amarretan eldu zan etxera, aspaldi illunduta gero. Blai-blai dator, ura lepotik sartu eta orpotik urten. Ardaoak karu erosi ditu, mandoak iñoz baiño biurriago... asarre dator.

• * *

Sartu da etxean. Sutondoan andre Josepa epelean, galtzerdia egiten; egun osoan lan asko egin dau, kanpoan euria goitik beera eta ez dauka jagiteko gogorik:

—Zu, Oto, erradea utsik daukagu. Ura palta. Gaiñera, euria da. Buztita zagozen ezker, artu erradea eta ura ekarri iturritik.

Nik uste neban onduantxe trumoiak eta tximistak joko zituala; baiña ez, ixil-ixilik erradea artu eta badoa ur-billa erroko iturrira. Milagroren bat gertatu da.

Ba-dator etxera erradea urez gaiñezka. Sartu de andre Josepa'ren ondora; lasai egoan galtzerdi egiten. Bat-batean uztu dautso erradea burutik beera:

—Zu ere, buztita zagoz orain. Joan eta ekarri ura iturritik.

Andre Josepari ez jako arnasarik bere onera etorri oraindiño:

—Alena, alakoa..!

TXOKOLATE GOGORRA

Urte batzuek dirala oitura izaten zan elizetan gogojardunak izatea.

Aste beteko sermoiak eta itzaldiak ziran eta ondoren jende guztia konpesatu egiten zan banan-banan, euren pekatuak aitortuz barkamena eskatzeko.

Garizumako sermoi oien ondoren, Oto zekorria saltzera (aitortza egitera) joan zan elizara. Praille bizarduna an egoan konfesonarioko kaiolan sartuta eta bere aurrean bi errenkada luze gizon autortzeko txandean zain.

Otok presa aundia edo an zain egoteko astirik edo gogorik ez. Joan da Joseparengana:

—Zuk zer egingo zenduke, konpesatzera ba'zoaz, txanda-pasa egiteko?

—Praillearenganako asmoa ba'dozu, nik ori oso ondo ezagutzen dot eta konbeni jatzu txokolatea erosi eta eroatea. Asko guztatzen jako eta lau ordu badaroz konfesatzen. Aspertuta eta gosetuta egongo da onezkero. Zuk txokolatea erakutsi egiozu eta txanda-pasa egin baietz!

—Zu lako emakume argirik non?

* • *

Joseparen aolkuari jaramon egiñez, erosi eban Otok txokolaterik onena. Elizara doala, beztupo egin dau ladrillu mee batekin. Buruan argi bat biztu: jako.

—Zertarako txokolatea emon? Ladrillu dotore au sartuko dot txokolatearen zorroan.

Pentsau eta egin. Txukun gelditu jakon, itxura onean. Konfesonario aurrean estulka asi zan, praillea konturatu zan arteko guztian. Orduan txokolatea erakutsi eutson Otok.

—Ia, ba, datorrela ori, presa aundiakin dator-eta...

* • *

Egin zituen euren lanak: Otok esan eta besteak barkatu.

—Orain, penitentzirako, Aita Gure bat esan San Pedroren altara aurrean. Otok alde egiterako, sartu eutson agiña prailleak txokolatari. Sartu? Bai, zera... Agiña apurtu jakon. Bitartean Oto San Pedro-altararen aurrean otoitzean dago, amaitu dauanean, kalera bidean asi da; baiña, prailleek dei egin dautso bereganatzeko:

—Ator, ator. Penitentzia bete al dok?

—Bai, jauna.

—Azkartxo egin dok. Non zan?

—Ortxe, San Pedro-altararen aurrean.

—Or?

—Bai, jauna, ortxe.

—Ez, ez, orrek ez dau balio: Erromako San Pedroren aurrean bete bear dozu penitenti ori.

—Erroman..!

—Bai, Erroman.

—Penitenti gogorra emoten daust berorrek.

—Gogorragoa zoan ik emondako txokolatea.

ARRINDA'tar ANES

JUANTXO-TXIKI ETA BERE SOIÑA (2)

Juantxo-txiki ezagutu nai dogu eta Juantxo-txikik bat-batean agertzen dauskuna auxe da: azalez batutako soiña. Azurrez, aragiz, kirioz osotutako gorputza.

Gorputz ori, ordea, ez da aragi illa, bizia baiño. Soin ori bizirik dago. Aragitik alde ba-dau soin orrek beste zeren bat, nunbaitekoa, gorpua lurrezkoa izanik.

Soiñaren lenengo lana aztea da, zugaitzen antzera, ezkurretik sortutako aritza azten dan lez. Eta, gure aritza egunen batean zugaitz lerden eta sendo izango bada, azitze au kontuan artzekoa izango dogu.

Juantxo-txiki Don Juan Lerden izango bada, egunero bere azi-bear orreri arretaz begiratuko dautsogu.

Umetxo geienetan bide berdin Samarrak erabilli oi dauz gorputzaren azitze orrek, alde aundi barik. Azitzea bazuetan bizkorra izaten da; beste uneetan, berriz, geldoa eta lasaia. Bizkorrean eta lasaiago. Une bizkorrean irabazita-koa, une lasaian sendotu: orra gorputzaren joka-bidea.

Dana aztea ba'litz, soiña makaldu egingo litzake; baiña, lan bi orreek txandaka egiten ditu umearen gorputzak: luzatu eta gero sendotu.

Ori badakizue gurasoak. Orretan konturatzen zaree.

Gauzak orrela ba'dira, zer ondoren atera leike gertaera orreetatik?

Bat beintzat bai eta garrantzi aundikoa eta auxe da:

Umearen gorputza bizkorrean azten danean, orduan bere indar geienak lan orretarako bear dituala soin orrek.

Ortik ondoren au aterako dogu:

Une orreetan bestelako lanak (ikastolakoak esate baterako) ez dirala geiegizkoak izan bear. Geiegizkoak, soiñaren aurkakoak izango dira. Lana beti neurrian bear dau umeak; baiña, batez be, gorputza goraka doakionean.

Biarko zugaitzik ez gaur ondatu karga geiegiz.

Biarko giza-emakumeen gorputzik ez gaur ondatu lan geiegiz. Geroko gorputza sendoa eta osasuntsua izango ba'da, orain neurriak artu. Umearen gorputza arbola gazte baten antzekoa dozu: arbola gaztean oker txikia aundia gertatzen da gerorako; arbola aundian, barriz, oker txikia beti txiki izango da.

Ona ume-gorputzaren luzatze-txandak zelan joaten diran gitxi gora-beera:

Lenengo lau urteetan, bizkor eta arin.

Lau urteetatik zazpira bitartean, galdirago eta astiroago.

Zazpitik amarrera, barrero bizkorrean.

Amarretik amabi edo amairura, berrero lasaiago.

Andik aurrera, bizkor gorputza bere neurri osora elduko dan arte.

Zazpi urteetatik amarrera eta amabitik aurrerago, soiña neke-aldian dabil luzatu eta luzatu, azi eta azi. Aldi orrek dira, batez be, begien aurrean eukitekoak.

Gorputza bere etorkizuna antolatzen dabilenean, oso lanpeturik, orduan umea nagi eta indarrak gabe aurkitzen da. Alperra danik ez arpegira bota; naiko lanak ba-ditu bere barruan-eta. Nola nai dozu ikaskizunetan indartsu eta kementsu jokatzera, dituan indarrak bere gorputza azteko eta jasotzeko bear ba'ditu? Izan berarekin begirune apur bat.

Atomo-aro onetan umeari geiegi eskatzen dautsogu bai eskolan, bai etxean eta bai kalean. Irakasleak txarto ez gelditzearren; gurasoak euren seme-alabak besteena baiño gitxiago ez izatearren eta gizarteak arduragabekeriz, danon artean umetxoen osasuna ondatzen ari garala esango neuke. Guraso zuur, ez dagitzula arrokeriak begirik itsutu.

Colón de Larreategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz,

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.